

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko URRIA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,2 igo dira 2024ko urrian

Aurreko hilaren aldean, salmentak % 0,6 jaitsi dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko urrian, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzenduta, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,2 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean.

Urriko salmentak, aurreko hilarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta dagozkion urtaro-eraginak atera ondoren, % 0,6 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmentak egonkor mantendu dira hiletik hilerako balioetan *Elikaduran*, eta *Gainerako produktuetan*, berriz, % 1,7 jaitsi dira. Urtetik urterako balioetan, 2023ko urritik 2024ko urrira, salmenten bilakaera positiboa izan da bi sektoreetan: % 2,7 igo dira *Elikaduran* eta % 1,1 *Gainerako produktuetan*.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Urria 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,2	-0,6	0,3
Araba/Alava	1,6	-0,1	0,3
Bizkaia	3,0	-0,5	0,3
Gipuzkoa	1,0	-0,9	0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	2,7	0,0	0,6
Gainerako produktuak	1,1	-1,7	-0,3
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	2,1	0,7	1,6

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

2024ko urrian, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak, urtetik urterako balioetan, % 3,0 igo dira Bizkaian, % 1,6 Araban eta % 1,0 Gipuzkoan.

Aurreko hilarekin alderatuta, berriz, salmentek % 0,9 egin dute behera Gipuzkoan, % 0,5 Bizkaian eta % 0,1 Araban.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile-kopurua** % 2,1 igo da 2023ko urriarekin alderatuta. Aurreko hilarekin alderatuta, langileen indizea % 0,7 igo da.

2024ko **lehenengo hamar hilabeteetan metatutako aldian**, salmentek % 0,3 egin dute gora Euskal AE osoan. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan % 0,4 igo dira, eta Bizkaian eta Araban berriz, bietan, % 0,3.

Sektoreen arabera, *Elikaduran* urte hasieratik salmenten metatuak % 0,6ko igoera izan du, eta *Gainerako produktuetan*, berriz, salmentek % 0,3ko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak, egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatzeko dira, eta hil arteko aldakuntzak urtaroen eraginik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,97ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62